

Paperen auzia

ESZENA

(ARTEZ ANDREA auzitegian sartu da. TXOLIN TXORIBURU eta ANDOLIN ERRETXIN zutitu egin dira.)

ARTEZ ANDREA: Ikus dezagun zer daukagun gaur ... Ea, bada ...

(ARTEZ ANDREA, eserita dagoela, aurrean dituen paperak aztertzen ari da).

ANDOLIN ERRETXIN: Andrea, zure aurrera etorri naiz justizia egin dadin eskatzera. Gizon honek paper mordoa bota du nire farmaziaren atarian.

ARTEZ ANDREA: Paperak! Paperen auzia... Bai, bai... (Harriturik, TXOLIN TXORIBURURI begira.) Eta zergatik egin zenuen hori? Ea, zergatik?

TXOLIN TXORIBURU: Badakit gaizki egin nuela, baina zera, ni asmatzailea naiz eta jendeak lurra zikintzen duela ikusita, zerbait egin behar nuen.

ARTEZ ANDREA: (Zur eta lur.) Ez dut ezertxo ere ulertzen!

ANDOLIN ERRETXIN: (Sumindurik.) Ezta nik ere!

TXOLIN TXORIBURU: Bada, oso erraza da ulertzen: makina paperjalea asmatu dut! Paperen bat lurrera eroriz gero, makina harrigarri honek jan egingen du. Mesedez, andrea, bota ezazu paper bat lurrera eta ikusiko duzu...

(ARTEZ ANDREAK paper bat bota eta makinak jan egin du.)



ARTEZ ANDREA: Itzela! Txoriburu jauna, zure asmakari miragarri hori hiritar guztion zerbitzura jartzera zi-gortzen zaitut.

(ARTEZ ANDREA ohartu egin da TXOLIN TXORIBURU makinarekin txutxumutxuka ari dela).

ARTEZ ANDREA: Zer gertatzen da orain?

TXOLIN TXORIBURU: Andrea, asmakaria gose da eta... zure paperak jan nahi ditu.

(Une horretan, makina, mahai gainera salto eginda, paperak mauka-mauka jaten hasi da. Epailea paperak babesten saiatu da. ANDOLIN ERRETXIN makina mahaitik aldentzen saiatu da, baina makinak haginka egin dio.)

ANDOLIN ERRETXIN: Ai, ai, ai! Haginka egin dit!

TXOLIN TXORIBURU: Itzela da! Aparta! Asmatzaile benetan bikaina naiz!

Aukeratu erantzun zuzena.

1 Non gertatzen da irakurri duzun eszena?

- A. Antzokian.
- B. Eskolan.
- C. Auzitegian.
- D. Auzitegian.

2 Zein dira testuko pertsonaiak?

- A. Txolin Txoriburu, epailea eta makina paperjalea.
- B. Artez Andrea, Andolin Erretxin, Txolin Txoriburu eta makina paperjalea.
- C. Artez andrea, Txolin txoriburu eta epailea.
- D. Makina paperjalea eta Artez Andrea.

3 Zer egin zuen Txolin Txoriburuk?

- A. Andolinen etxean paper mordoa bota zuen.
- B. Artez Andrearen auzitegian asmakizunen saltoki bat jarri zuen.
- C. Ezertarako balio ez zuen makina bat saldu zion Andolin Erretxini.
- D. Andolin Erretxinen farmaziaren atarian paper mordoa bota zuen.

4 Zergatik egin zuen hori Txolin Txoriburuk?

- A. Andolin Erretxinek botika txar bat saldu ziolako.
- B. Bere asmakizuna probatu nahi zuelako.
- C. Jendeak egin ohi duena egin nahi zuelako.
- D. Ikasturtea bukatu zelako.

5 Zer asmatu du Txolin Txoriburuk?

- A. Auzitegiak gustuko dituen makina.
- B. Papera jaten duen makina.
- C. Lurra zikintzen ez duen makina.
- D. Botikarik behar ez duen makina.

6 Zer zigor jarri dio Artez Andreak Txolin Txoribururi?

- A. Andolin Erretxinen farmazian lan egitera zigortu du.
- B. Auzitegiko paper guztiak jatera zigortu du.
- C. Bere makina herritarren zerbitzura jartzera zigortu du.
- D. Asmakizun gehiago egitea debekatu dio.

7 Zer gertatu zen epaiketaren bukaeran?

- A. Txolin Txoriburuk Andolin Erretxini haginka egin ziola.
- B. Artez Andreak paper guztiak lurrera bota zituela.
- C. Andolin Erretxin epailearen mahaiaren gainera salto egin zuela.
- D. Makinak epailearen mahai gainera salto egin eta bere paperak jan zituela.

8 Zer azaltzen da parentesi arteko esaldietan?

- A. Pertsonaiek esaten dutena.
- B. Pertsonaien jarrera, sentipenak eta ekintzak.
- C. Irakurleek pentsatzen dutena.
- D. Makina paperjaleak pentsatzen duena.

9 Zer motatako testua da?

- A. Albiste da.
- B. Komikia da.
- C. Antzezlan da.
- D. Arauak azaltzen dituen testua da.

10 Aukeratu egia dena.

- A. Antzezlanak egunkarian irakurri ohi ditugu.
- B. Antzezlanak irratian entzun ohi ditugu.
- C. Antzezlanak eskola-liburuetan baino ez dira agertzen.
- D. Antzezlanak antzokian antzezten dira.